

CLUB DEPORTIVO HERNANIKO URTEKO ASANBLEA



CD Hernaniren urteko Batzarra, asteakenean, Sandiusterrin. Aurtengo Asanblean joan den urtean baino jende gehiago izan da.

CDHko urteko batzarrak erabaki du bazkide kuota % 20 igotzea eta jokalariei ahal den neurrian taldean eustea

■ Futboleko talde nagusia "ez da behar bezain ondo ibili" ■ Denboraldia zor txikiarekin bukatu du CDHk. Kontuan hartu behar da Zubipe itxita egon dela 4 hilabeteetan eta denbora horretan ez dela ingresorik izan.

CLUB Deportivo Hernanik urteko Asanblea egin zuen asteakenean. Batzarrera 20 bazkide inguru eta direktibok azaldu ziren eta balorazio ekonomikoa eta kirol balorazioa egin zituzten. Aurten 2.500 euro inguruko defizita izan du CDHk eta datorren urterako neurriak hartu behar dituzte, horri buelta emateko. Bestalde, kirol balorazioari begiratuta, futboleko ez da oso urte ona izan, baina, beste kiroletan (pelota eta abar) gustora egoteko moduko denboraldia egin dute. Hartu diren bi erabaki nagusiak izan dira: batetik, bazkideen kuota % 20 igotzea, eta futbol jokalariei ahal den neurrian Hernaniko taldeetan eustea.

"Defizit haundirik ez"

Aurten 2.500 euro inguruko galera izan du CDHk baina hori ez da oso larria ardura-

dunen ustez. Juan Bautista Biurarenak esan zuenez "kontuan hartu behar da uholdeek Zubipe itxita eduki dutela 4 hilabeteetan eta denbora horretan taldeak ez duela batera ingresorik izan". Datorren urteko presupuestoan sartu dute aurtengo diru galera eta espero dute zor guztiak kitzatzea, baldin eta berriz ere uholderik edo ezustekorik izaten ez badute. Datorren urteko presupuestoa: 135.000 euro.

Bazkideen kuota igotzea

Bazkideen kuota % 20 igotzea erabaki zuen Asanbleak asteakenean. Horretarako arrazoiak dira: batetik, aurten 2.500 euroko defizita izan dela eta horri buelta eman behar zaiola; bestetik, 12 urte daramazkitela kuotarik igo gabe; eta azkenik, datorren urteetan ez dutela espero jasotzerik orain artean jaso duten laguntza edo diru kopu-



Rikardo Ramos

CDHko Lehendakaria

"Ederra litzateke talde gazte batek direktiba hartzea; herritarrak mugitzeko gogoia eta indarra izango lukeen talde batek"

rik. Orain artean hiru kuota kantitate ordaintzen ziren, eta aurtengo igoerekin horrela geldituko dira: lehen 60 euro ordaintzen zutenek hemendik aurrera 72 euro ordainduko dituzte; lehen 30 ordaintzen zutenek orain 36 ordainduko dute; eta 12 eurokoek orain 15 euro ordainduko dute.

Kirol balorazioa

Iazko kirol denboraldia ere baloratu zuten Asanblean. Esan zuten, futbol denboraldia ez da uste bezain ona izan, baina, gainerako kirolekin oso gustora gelditu dira. Ardura-dunen esanetan futbol taldeetan arazo handia ari da bihurtzen jokalariek beste taldeetara joatea. Diotenez, urtero izaten dituzte baja asko (gehi-enbat talde nagusian) eta kasu batzuetan direktibarekin kontsultatu gabe joaten dira. Batzarrean erabaki zen kasu horiek pixka bat kontrolatzea. □

Etterat elkarteak

kontzentrazioa deitu du gaurko, 'Guztion artean euskal presoak Euskal Herrira' lemarekin

ETXERAT elkarteak hernaniar guztiei dei egin die gaur arratsaldean presoak Euskal Herrira ekartzeko egingo duen ekitaldira. Deialdia, 20:00etan da, Gudarien plazan. Etxerategogora arazi du Hernaniko 20 presoak Euskal Herritik kanpoko kartzeletan daudela, horrek presoarentzat dakarren sufrimendua ez ezik familiari sortzen dion sufrimendu eta gastu ekonomikoarekin.

Etixeraten hitzetan, "oporraldi garai honetan presoek sufrizten segitzen dute espetxeko presioa, aislamendua, bisitatze baimenak murriztea, idazteko aukera eta telefono deiak murriztea. Guztia presoaren suntsipena biltzen". Etxerategogaldu du non dauden presoek eskubideak.

Bestalde, Etxerategogongietoria eman dio Gabino Etxeberriari berriro herrian dagoelako. □

ERREMONTEA

Promesetako finala Matxin III-Agirrezabala eta Larrea-Urrutiak jokatuko dute

PROMESETAKO finala erabakita dago eta irailaren 6an Matxin III-Agirrezabalak eta Larrea-Urrutiak jokatuko dute. Matxin III eta Agirrezabalak 35-29 hartu zituzten mendean Juaristi eta Gaztelu. Partiduko onena Agirrezabala atzelaria izan zen Gazteen Casino Kursaal txapelketa honetan.

Bihar Ezkurra-Zeberio

Larunbatean, Koteto Ezkurra eta Patxi Zeberioak ligilako azken partidua jokatuko dute, finalerako postu bila. Ezkurrak 24 tanto egitea nahiko du, Eizagirrerekin batean sartzeko. □

Ainhoa

David

Gaur ezkonduko dira.
ZORIONAK aita, ama, Larraitz, Jon eta familia guztiaren partetik.

ITXASPE

Arandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

musika eskola
DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerria
943 33 12 33 - 20120 HERNANI

**MATRIKULAZIOA ZABALIK:
IRAILAREN 8tik 26ra (arratsaldetan)**

Musikaren lenguaia
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria modernoa

Tronpeta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

Helduentzako ikasketa bereziak - Talde txikiak - Musika lenguaia 4 urtetik



Santa Barbarako harrobian bete lana iaztik bukatuta dago.

Santa Barbarako harrobia egokitze proiektuak aztertzen ari da Udala

■ Lau proiektu daude mahai gainean ■ Erabakia patxadaz eta ondo aztertuta hartu nahi du Udalak, eta espero du legegintzaldi honetan proiektua martxan jartzea.

SANTA Barbarako harrobia denbora-pasako leku bezala egokitze proiektuak aztertzen ari da Udala. Andoni Amonarraiz zinegotziak eta Gobernu Batzordeko kideak adierazi du orain dela 8 urteko asmoari heldu nahi diotela, inguru hori aisialdi gune bihurtu nahi zuen jatorrizko ideatik abiatuta. Udalak toki pribilegiatu kontsideratzen duen horri konponbidea emango dion proiektu neurtu eta bideragarria prestatu nahi du.

Proiektu bat aukeratu edo denekin bat osatu

Momentu honetan Gobernu Taldeak ideia lehiaketa bidez jasotako lau proiektu dauzka mahai gainean, eta horietaz gainera orain dela urte batzuk egin zen plana. Amonarraizek Kronikari esan dio Udalak Santa Barbara egokitze proposamenik egokiena bultzatuko duela, eta hori izan litekeela orain darabilzkiten proiektuetako bat, edo proiektu guztiekin osatutako beste berritatu bat.

EA-EAJ koalizioko zine-

gotziak aurreratu duenez "tokia oso egokia da familia giroko aisialdirako, pic-nic lekuak eta kirol guneak bilduta. Kirol gune horiek agian, aire libreko igerilekuak ere izan ditzakete".

Andoni Amonarraiz

EA-EAJ-ko zinegotzia

"Tokia oso egokia da familia giroko aisialdirako, 'picnic' lekuak eta kirol guneak bilduta. Kirol gune horiek agian, aire libreko igerilekuak ere izan ditzakete"

Aurrekontuari dagokionez, orain dela urte batzuk osatu zen planak orduko 1.000 milioi pezetako aurrekontua zuten. Amonarraizek esan du Udalak ezin lezakeela neurri horretako proposamenik bere gain hartu, eta proposamen berria aurrekontu aldetik beste tankera batekoa izango de-

la, oraingo zentzuzko aurreratu ez badu ere.

EA-EAJ zinegotziak uste du Santa Barbara egokitzeak bere denbora beharko duela eta bere helburua da datozen 4 urteotan proiektua definitu, finantziarioak lortu eta martxan jartzea.

Agenda 21ekin bat datorren inizatiba

Andoni Amonarraizek nabarmendu du Santa Barbarako harrobia egokitzea bete-betean datorrela Agenda 21 planarekin eta hiruko gobernua osatzen dutenen arteko hitzarmenak eramangarritasuna eta ingurugiroa bultzatzearen alde hartutako konpromisoarekin.

"Europako Batasunak - dio zinegotziak - behin eta berriro esan du beharrezkoa dela hondatuta dauden eremuak (harrobia, esate baterako) berreskuratzea. Eta Santa Barbarako harrobiari buruzko proiektua bat dator industriak hondatutako inguruak hobetzea bultzatzen duen bide horrekin. □

PORTUKO JAIAK GAUR HASIKO DIRA



Umeak izango dira gaur protagonista Portuko jaietan.

Umeen eguna gaur Portun eta gauean Laiotz taldea

■ Egurdiko 12:00etan botako dute jai hasierako txupinazoa ■ Arratsaldean, Lorontzi lehiaketa.

PORTU auzoak gaur eguerdian hasiko ditu San Juan Txiki jaiak eta umeak izango dira gaurko protagonista nagusiak. Goizetik hasita, aktibitate eta joku asko daude antolatuta haien gozamenerako: marrazki lehiaketa, umeentzako parkinga, herri-kirolak eta abar.

Ez dira, ordea, umeak bakarrik izango gaur egun ederra pasatzeko aukera izango dutenak. 18:00etan urtero bezala lorontzi lehiaketa egingo da eta seguru aurten ere estimazio handia izango duela. 19:00etan, Tute txapelketa jokatuko da Pedro Mari tabernan eta 20:30ak aldera sardina freskoak jateko aukera izango da. Gauean ere jende asko izaten da Portun. Giroa berotzeko *Laiotz* arituko da gaur. □

EGITARUA

- 10:00 Marrazki eta Pintura Lehiaketa.
- 11:00 Egurdiko 13:00ak arte Haurren Parkinga: puzgarriak, ohe elastikoak eta parke txikia.
- 12:00 Jaien hasiera emango zaie sularia botata. Buruhandi eta txistulariak aterako dira auzoko bazter guztiak alaitzeko.
- 13:00 Auzoko gazteek egindako marrazkien lehiaketa.
- 16:00 Arratsaldeko 19:00ak arte Haurren Parkinga.
- 17:00 Herri Kirolak umeentzako.
- 18:00 Lorontzi Lehiaketa.
- 18:30 Haur jokoak.
- 19:00 Tute Txapelketa 'Pedro Mari' Tabernan.
- 20:30 XIV. Sardina Jatea.
- 23:00 Dantzaldia 'Laiotz' taldearekin.

IRAGARKI MERKEAK

Katu bat oparitzen da. 3 hilabete ditu, txuri beltza da eta ohituta dago etxean bizitzen. Interesatuak deitu: ☎: 653 71 80 53.

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: ☎: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

Emakume bat behar da umea ikastolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Lanerako sarre- ordua 07:15etan. 943 333446 (20:00etatik aurrera) - 606 526260

Pertsona batentzat, pisu baten alokairu merke baten bila nabil. ☎: 649 07 53 59.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Gaez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941

JUBILATU ETXEA

Dantzarik ez igande honetan

GOIZ Eguzki Jubilatutako Etxeak gogoratu arazi du igande honetan, abuztuak 31, ez dela bailerik izango taberna oporretan dagoelako. Taberna zerbitzua berriz astelehen zabalduko dute. □



URREZKO EZTIAK

1953ko abuztuaren 29an ezkondu ziren

Constantino Poza
eta
Maria Gonzalez

ZORIONAK
anai arriben
partetik

ZORIONAK

M^a Rosa Aranburu Urkizu

Karmeldar misiolaria

1953-8-29 / 2003-8-29

50 urtez lekaime



"misiolariak saririk gabeko bolondresak dira, izenik gabeko esploratzaileak, osperik gabeko martiriak"

Pablo VI, 1972